


11. zkia. (bai, jaien ale berezia kontatuta) 1998ko azaroa
Imajinatu zazu momentu labur batez ilunean lotua egotea zer den. Ekon.

h a u

h a u

N

on zeundeten
desmuntaian? Zer
uste duzue? Denbora
pasa eta gero
barkatzeko prest
gaudela? Bada, ez!



Desmontatzailearen bakardadea

“Ez duzu ikusten goizeko ordu bi t’erdiak direla eta...?”, “Venga, tío, enróllate...”. Desmontaje gaua gau berezia da. Batez ere mailua eskuetan dagoen konpartsakide koitaduari azken katxia —dohanik— eskatzen dioten horiekin esker. Behin, adibidez, hau entzun behar izan zuen gutako batek “makinak itzalita daude” esplikatzeko jardun eta gero: “¡ojalá que tengas trabajo toda tu vida!”. Eta iaz Gora ETatik Arriba Españara kristoren erraztasunaz pasatzen zen agure hura? Gogoratzen zarete?

Aurten ere espektatiba horiekin hasi zen gaua eta esan beharrik ez dago guztiak bete zirela. Baina oraingoan, hasierako asmoa bazen ere, ez dugu horretaz hitz egingo. Han izandako hiru kideek txoko hau eskatu digute eta guk, Lecturas eta

abarren antzera, beren bitzita kontu diezaguten onartu dugu:

Desmontaje gaua, part uan

“Gauak aurrera zihoan, iltzea gora eta iltzea behera, iltzeak sartu zituena madarikatuz. Panelak osorik kentzea

zen belburua,
gutxitan betea.
Jende gutxi
baina giro ona
zegoen.
Kataklismoa eto-
rri arte”.


Desmontaje gaua, part txu (kataklismoa)

“Halako batean
jendea ospa egi-
ten hasi zen.

“Bueno, agur,
eh?”, “joan behar
naiz”, “nik ere
bai”, “bueno,
Moro, Lasai, zu
parkatuta
zaude” Goizeko
lauetan lau
baino ez ginela
konturatu ginen.
Zorionez, Hoi

Dagokoek; gutaz barre egin beharrean,
afaltzera gonbidatu gintuzten. “Bai,
eskerrik asko”, pentsatzeko denbora
behar genuen egokitu zitzaigun marroia
analizatzen. Afaltzeko, zer eta buztana.
“Biharko titularra: Hau Pittu Haukoek
buztana jan digute”. Barre ugari, baina
gu ixilik; gutxiago ginen eta inpotent-
ziak ez hiltzea zor genien. Buztana ede-
rra zegoen gainera. (Inpotentziarenak
eta buztanak ez dute zer ikusirik kasu
honetan). Lauretako batek ez zuen afal-
du, ordea: “Parkatu, baina... Nire anai-
a injentziatara eraman dute eta...”, “lasai,
gizona, lasai joan”.

“Hiltzera daramaten ardiak legez
jan genuen azken buztan puska. Gero,
taktika lasai bati ekin genion: pertsonak
garela gogoratu eta ahal genuena baino
ez egitea erabaki. Goizeko zazpi terdie-



tan, ondo merezitako gosari baten oste-
an, txosnan jesarrita geunden, besoetan
neurri gabeko nekea eta buruan
marroien zerrenda amaigabea genuela,
lehen biktimaren zain. Peru izan zen.
Denborarik eman gabe, ankerkeriaz,
egoeraren deskripzio zehatza egin
genion eta ohera joan ginen.

“Gerora jakin dugunez, pertsona
bakar bat egon zen Perurekin batera
goiz hartan.

“Bai, kritika da”.

**Hau... hau-ko erredakzioaren oha-
rra: Desmontaje gaueko hiru
heroien (edo ero hoi) izenak
sekretupean gordeta daude.
Asmatzen dituenak lehu bat ir-
baziko du datorren urtekoan.
Dohanik.**

informa zaituz!

MARRASKILOA
askatu!

ETA EZ
dastatu!

Aste Nagusia jai eta gatazka garaia izaten da. azken urteotan Hor Dago-ren aurkako jai giroko lehia eduki dugu, elefantea dela eta, "marraskiloa lapikora" eta abar.

Aurten, eta inolako probokaziorik gabe —Lekittoko Kimuaren pintadatxo batzuk kenduta— Satorrak konpartsakokak guda ireki zuten eta gure marraskiloa berriro bahitua izan zen.

Ekintza domeka goizean burutu

zen eta marraskiloa jarraitzen du beraien eskuetan.

Satorreko Lourdesekin negoziaketa batzuk burutu ostean marraskiloa ez duela minik jasango esan zigun, baina ez digutela itzultzeko asmorik.

Konpartsakideok, ezin dugu irain hau onartu, prestatu gorputzak eta ari-mak borrokarako zeren ez badigute marraskiloa itzultzen Satorrakoeke gure bortizkeria jasan behar izango dute.

Morau kontzertuan

Abenduak 17, osteguna.

Bilborocken.

Bai euskarari kanpainaren barruan.

.....

Bertso triki kalejira

Abenduak 19, zapatua.

1etan, Kalderapekon.

Geroago bazkaria egingo da eta arratsaldean giroa zaxpi kaleetatik —HPHko asanblada abaztu barik—

Bai euskarari kanpainaren barruan.

Laburpena:

- 12an. Marraskiloari ongi etorria. 8:30etan, Morgan.
- 13an. Bizikleta Martxa Arenaileraino, bertsolariak eta txistulariak.
- 17an. Morau kontzertuan, Bilborocken.
- 19an. Bertso triki kalejira, 1etan, Kalderapekon.
- 19an. Hau Pittu Hau asanblada. 8etan, Morgan

Azken afarian Judas ere bazen

Kaixo, entzule maitea. COPEk hilero aurkezten dizun ipuin saioan zaude.

Dagoeneko, ipuin klasi-koen bilduma bukatu zaigu. Hori dela eta, aproba egingo dugu gaur gure kolaboratzaile berri batek idatzitakoarekin. Gure saiokide berriak, Martinez, orain dela gutxi utzi du Zamudioko herria, Ikerketa taldean jasotako estresa kendu ostean. Bere nagusiek lan honetan kristonak egin ditzakela esan digute.

Hortxe doa izar berri honen ipuina:

«Behin batean,

aurretik diseinatutako plangintza maltzur eta masoia zela bide, hainbat kide bildu ziren Morga Tabernan konspirazio hutsaren antza zeukan asanblada batean. Proiektuari buruzko isiltasuna kide guztiei zeriela ez dugu ezer jakin izan nahi. Badakizu, Garzonek jarritako sumarioari buruzko isiltasuna dela eta.

Guk jakin nahi izan dugun gauza bakarra -eta gure ahalmenarentzat nahiko gogorra dena dagoeneko-, pizti hauek matxinadaren eratze fasea burutu ostean nola elikatu ziren eta horren eraginak.

Bai, degenérazio hitza soberan ez dagoenez, Bilboko auzo ezberdinetako biztanleekin tortura psikologikoa erabili zutela aipatu beharra dago. Horretarako tresnak, ahots zorrotz eta mingarrien zarata malenkonikoak.

Maltzurkeriaren borrherrak, HPH tortura taldeko gizonezko batzuk. Beraien idoloa, txikia, naiz eta inor Lazkaokoa.



ez izan.

Baina, utz ditzagun giza eskubideen aurkako erasoak, moralaren kontrakoak ere izan baitziren. Entzun izan dugunez, marraskilozaleen arteko orjien aztarnak oraindik ikusgarriak dira eta baba etxe konkretu batzuetaraino ailegatzen da.

Detailleak gure badituzue, entzun arretaz. Areata izeneko lapurren kobazuloan, Hordagoko kide bat harro harro marraskiloen artean bere traizioaren berri eman zuen. Gainera, haietaz trufatzeko premian zegoela Pulitzer saria merezi duen HPH taims izeneko aldizkaritxoak ikusi zuen

argia. Portzierto, Ansonek burmuin azkar horren atzean dagoela jakin izan dugu.

Baina jenialitatea askotan ez da ulertua eta basatien artean are gutxiago. Gure traidore mai-tea baztertua izan zen.

Separatismoaren bidetik zihoazela, Frantziako euskaldunen kantuei ekin zieten han bildutakoak. Ekin eta apurtu, jakina.

Jada kalean, eta beldurra eta terrorea eragiten zutela, hasi zen talde txikietan banatzeko ohitura, batzuetan Arzalluzek adierazitako apareamendu errotoaren antza zeukala.

Nik, nire lagun er-tzain, guardia zibil eta poliziëkin nihoala -badakizu, de putas-, seikote ziztrin bat aurkitu nuen nire diskoteka faboritoan. Argi zegoen ekintza terroristaren bat prestatzen zeudela. Benetan bertso-tan egitekotan jakingo zuten oinek errimatu egin behar dutela eta ez 4 edo 5 bukaera ezberdin eduki.

Geroago galdu nien pista, baino hiritar kolaborazioaren izenean guzti honen berri eman nion Garzoni. A por ellos... y a por ellas... -zer matxista nintzela pentsatu duzue?-

***Abenduak 19, zapatua.
Arratsaldeko Setan.
Someraiko Morga tabernan.
Hau Pittu Hauren asanblada.***

Gaiak:

- Santo Tomas eguna***
- Bai Euskarari kanpaina***
- Ihauteriak***

Marraskiloari ongi etorria

Ea 4 hilabete bahituta egon ondoren, gure marraskiloa berriro gure artean egongo da. Nahiz eta tortura fisiko zein psikologiko latzak erabili, ONCEkoek gure konpartsakidea ezin izan dute apurtu. —Zer, ez zenekien zatorrek kupoioa saltzen irabazten dutela bizitza ala?—. Horra hor ongi etorriaren egutegia:

Abenduak 12, zapatua.

Somera kaleko Morga Tabernan hasita.

- 20:30etan, emanaldia ofiziala —Gurutze Gorriko ikuskatzaileak ez ditugu onartuko—.
- 20:45etan, bertsolariak: Mañukorta, Unai Iturriaga eta Xabier Amuriza.
- 21:15etan, —jakina, Amuriza isiltzea lortzen badugu—, dantzariak.
- 21:45etan, lore eskaintza.
- 22:00etan, poteo herritarra.

Bizikleta martxa

Abenduak 13, domeka.

Bai Euskarari kanpainaren barruan Bilboko batzordeak antolatatu du.


- 12etan bizikleta martxa auzoetatik arenaleraingo.
- 1etan Arenalean, bertsolariak eta txistulariak.

- Nor zara?
- Sonia, Kobetas Mendi konpartsakoa.
- Aste Nagusia "txupi" pasatuko zenuen, ezta?
- Bai. Egia esan, ahaztuta daukat.
- Gogorra al da?
- Ez. Ez da oso gogorra.
- Ba hurrengo galdera izorratu didazu...
- Zergatik?
- Baietz erantzutekotan, ea gogorregia ote den galdetu behar nizun.
- Ba jarri, jarri txistea. Uzi horrela.
- Gure konpartsarekin harremanak sakondu dituzula esaten da —mendekuaq irakurti—. Egia al da?
- Bai. Txupinerak, badakizu, konpartsa guztiekin harreman sakonak izan behar ditu, baina batzuekin estutzeko bakarrak eman dit denbora, zuenarekin adibidez.
- Agur.
- Agur. Ohore handia izan da niretzat elkarrizketu honetan parte hartzea.

informa zaitetz!

• Iragan den azaroaren 30ean, Hau Pittu Hauk burutu zuen bere XIII. asanblada —eta COPEkoek IX.a itxaroten zutela!—. Asanblada honetan, urtean zehar aurrera eramandako ekintzen balorazioari ekin genion. Horretaz aparte, eta konpartsa- ren estruktura indartzeko, azpitaldeak sendotzeko erabakia hartu zen. Horretarako, 5 azpitalde berritu dira: azpiegitura, koordinadora, ekintza, komunikazioa eta diruzaintza. Argi dagoenez, Koordinadora taldeari beste konpartsekin zein Konpartsen Koordinadorearekin dituen harremanak

clagozkio; Ekintza lantaldeak konpartsak burutzeko plangintza eta horri dagoz- kion lanen ardura dauka; Azpiegitura taldearen lana Ekintza zein Koordinadorearen material beharri erantzutea da, era berean, materialaren iraupena eta berarekin egiten dena ikus- katu behar izango du. Komunikazioak, kartelak eta horrelako- ak ateratzeaz aparte, irakurtzen ari zaren Hau...Hau hau argitaratu behar du. Azkenik, Diruzaintzak egin behar duena argi dago, ezta?




Euskararik gabeko Euskal Herria... hortzik gabeko Lehoia

Ze polita da ezkerrekoa izatea eta poterearen alde egitea. Bizitzaren aurrean jarrera aurrerakoi bat edukitzea eta Molotov-en "Matarile al Maricon" abestia eztarria lehertu arte ohiukatzea, edo Euskararen alde egotea baina erabiltzen ez bada.

Lehoiak konpartsaren kideak gutun bat bidertatu ziguten zeinean kritikatzeko zuten pregoia Euskara hutsean egitera behartu genuela. Horretan ere bai lepo-

ratzen ziguten Bilboko biztanlegoaren %90 baztertzearaz, eta hizkuntza banaketa tresna moduan erabiltzearaz. Leporaketa guzti horiei erantzuna emateko hitz



bakar bat erabiliko dugu: KOHERENTZIA.

Zuentzako harrigarria bada ere koherentzia daukagu, beraz Euskararen alde baldin bagaude erabiltzeko da eta ez keinu faltsuak egiteko. Gure jarrera oso garbi dago, ez dugu inor baztertu nahi, eta ez dugu utziko inor gu baztertzen.

Pregoiari dagokionez urte osoan zehar ikusten dugu nola udaletxetan, bai foru aldundietan, parlamentuetan, telebistan, irratian, lanean, epaitegietan eta abar gure hizkuntza baztertuta dagoen.

Duela hamaika urte gure konpartsa helburu batez jaio zen: Aste Nagusian Euskara bere lekuan ipintzeko eta ere bai aste horretan gure hizkuntzaren bazterketa galarazteko. Horretarako gutxienez aste horretan pregoia eta ahal diren

ekitaldi guztiak Euskara hutsean burutu daitezen saiatzen gara

Orain hain ezkerzale eta aurrerakoi zaren hori esaten duzu Euskararen alde zaudela baina daukagun uharte txiki hori kendu nahi diguzu ere bai, berriro ere zuen koherentzia hutsean gelditu da.

Lehoitarrei eskaera

Mesedez, itzul zaitezte koherentziaren bidera, bide zaila da baina benetako ezkerzaleak baldin bazarete dagoen bide bakarra da. Ea datorren urtean berpizten zareten eta ez duzue Eguzkizaleen txosnan entzutera behar-tzen ez “katxito kon muslito”, ez “txinga a tu madre”, ezta “torito enamorado de la luna”. Bukatzeko agur bat eta GORA ERREPUBLIKA (baina euskalduna).

mendeku txiki

Konpartsako bikote berriari: Antzarren azpiko musuak bizitza osoan gogoratzekoak izango dira. Ala ez? HPHko internautak.

Patri: Hainbeste denbora itxaroten eta azkenean animatu egin zara. Aupa leona!! HPHko internautak.

Eñaut: Cupidoren geziak bete-betea jo zaitu. Azkenik!! HPHko internautak.

HPHko internautak: Kontuz, mendeku txikian ez dugu onartuko mezu iraingarriarik. Zentsura Batzordea. (Lekeiitziarra lasaitu zaitetz eta orekatu mezuak).

HPHko gizonetzkoak: lehen aipatutakoa. Zentzura Batzordea.

Iurgi: Eta datorren urteko txupinera Gogoregikoa bada, zer? HPHko internautak.

Ordiziar horri: Zein ederrak dituken

begiak... Dyangoren antzera ixten ditukenean!! HPHko internautak.


Kanpi: Damutu hutsa zara. Zu joana herriak ez du barkatuko. Garesti aterako zaizu. Lekittoko kimuak.

HPHko internautei: Mendekuak idazteko horrenbeste denbora baduzue ez al da izango beste ezertan galtzeko aukerarik ez duzuelako? Sorginen biltzarra.

HPHko internautei: Lizarrako akordioa indarrean dagoen bitartean, berdin dit gogoregikoa zein aberrigintzako bada ere. Iurgi.

konpartsa osoari: ¿Y aquí cuando se come? Sonia Eguzki, auzokide aserretua.

euskalduna naiz...



Edozein hizkuntza den bezala, edota gaztelera eta frantsesa ez al dira bereizleak? Norbait beste herri batera joaten denean, lehendabizi hango hizkuntza ikasteari ekin behar izaten dio, integrazioa lortzeko eta bazterturik ez sentitzeko.

Gure hizkuntza kolonizatua izan denez, orain geure eskubideak eskatzea erdal populazioaren diskriminazio gisa ulertzera ailegatu gara, borrhoroak biktima bezala azalduz. Dena den diskriminazioa euskaldunok jasaten dugu. Guk bi hizkuntzak menperatzen ditugu eta beraz erdaldunek ez dute inolako oztoporik

gurekin mintzatzeko eta komunikatzeko. Arazoa guk euskaraz mintzatu nahi dugunean dator, erdaldun elebakarrek gure nahiaren aurka hizkuntza arrotz bat nahitahiez hitzegitera behartzen baikaituzte.

Arazo hau administrazioan areagotu egiten da gure eskubide indibiduala ez delako bermatzen. Erdaldunek ez dute inolako oztoporik, guk ordea atzerapenak, denbora gehiago egon eta eman beharra, batzutan esaldi mingarriak entzun beharra, eta askotan erdara erabiltzeko inposaketa. Horrela administrazioa herriaren zerbitzura egon beharrean, herria administrazioaren zerbitzura pasatzen ari da. Administrazioak herriar GUZTIEN eskubideak bermatu behar ditu, eta honen bamean eskubide linguistikoak.

Gogoratu beharra dago Euskal Herrian euskaldun elebakarrek gelditzen direla oraindik (22.500 pertsona baino gehiago), eta esan beharra dago hauek bai, benetan diskriminatuak daudela: administrazioan, osasun zerbitzuetan, komunikabideetan, lanean, ...